

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLAKO BULETINA

INFORMAZIO BULETINA 105. zk.
2020ko MAIATZA

www.ehu.eus/ingeniaritza-gasteiz

Edukiak

Titulazioen sustapena

- [Orientazio Azokak](#)
- [Master Eguna](#)
- [Hamaiketakoak Ingeniaritzarekin](#)
- [Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleen bisitak. Jarduera praktikoak](#)

Kudeaketa akademikoa

- [2018/19 ikasturteko graduondoko espediente onenen aitorpena](#)

Jarduerak eta bisitak

- [Visita SMC](#)
- [Santiagoko Unibertsitatearen bisita \(Txile\)](#)

COVID-19a zela eta, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Herriko Unibertsitatearen Arabako Campusean aurrez aurreko irakaskuntza jarduera eteteko agindu zuen, martxoaren 10etik aurrera.

Egoera horretan, Gasteizko Ingeniaritza Eskolak bere jarduketa plana jarri zuen abian, bere titulazioen ezaugarri espezifikoaren arabera. Hala, irakaskuntzarako alternatibak aktibatu zituen, ikasleei beren prestakuntzarekin jarraitzeko aukera bermatzeko.

Ikaslea, irakaslea, ikertzailea edo administrazio eta zerbitzuetako langilea bazara eta buletin honetan parte hartu nahi baduzu albisteak, esperientziak edo askotariko ekimenetan bizitakoak partekatuz, gure komunitatearentzat garrantzitsua dela uste duzulako, jarri gurekin harremanetan helbide elektronikoko edo telefono zenbaki hauen bidez: 945 014271

Informazio gehiago Eskolako webgunean: www.ehu.es/ingeniaritza-gasteiz

Jarrai gaitzazu
sare sozialetan ere:



Buletin honek hizkuntza EZ sexista erabiltzen du:

<https://www.ehu.es/berdintasuna-direccionparalaigualdad>



Orientazio Azokak

Donostia-Gasteiz-Bilbo:

Otsailaren 1ean, 2020ko Unibertsitateko Orientazio Azoka egin zen Arabako Campuseko Farmazia Fakultatean.

UPV/EHUko Unibertsitateko Orientazio Azokak unibertsitateko hiru campusetan egiten dira, hiru larunbatetan, jarraian. Gipuzkoan eta Araban egin ondoren, Bizkaiko Campusean egin zen azkena, otsailaren 8an (larunbata), Ekonomia eta Enpresa Fakultatean eta Bizkaia Aretoan.

Orientazio Azokek aukera ematen diete etorkizuneko ikasleei UPV/EHUren graduiko ikasketak gertutik ezagutzeko eta unibertsitatera sartzeko prozedura osoaren berri izateko.

Gasteizko Ingeniaritza Eskolak parte hartu zuen hiru azoka horietan, bertan eskaintzen diren graduak aurkeztuz eta azalduz. Horrez gain, zuzendaritzako zenbait kidek hitzaldiak eman zituzten.



Miranda de Ebro:

Otsailaren 21ean, Miranda de Ebroko Expouniversitas SSCRen XIII. edizioan parte hartu zuen Eskolak.

Ikasleentzako orientazio azoka horretan 35 erakusmahai egon ziren, eta hor egon ziren, besteak beste, Ruper Delgado eta Jose Antonio Ramos, Eskolako ordezkari gisa.

400 ikasle baino gehiagok bisitatu zuten azoka, eta gradu hauek ezagutu ahal izan zituzten: Automobilgintzaren Ingeniaritza, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza, Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza, Ingeniaritza Mekanikoa eta Industria Kimikaren Ingeniaritza. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako gradu bikoitzak ere ezagutu zituzten, baita Ingeniaritza

Mekanikoko eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradu bikoitza ere.

Bigarren Hezkuntzako eta Goi Mailako Zikloetako ikasleak, Miranda de Ebrotik ez ezik, inguruko beste hainbat herritatik etorri ziren (Villarcayo, Medina de Pomar, Villasana, Briviesca...), eta arreta eta interes handia erakutsi zuten.

Ekitaldia Sagrados Corazones ikastetxeko klaustroan egin zen, eta helburu izan zuen inguruko Batxilergoko ikasleei orientazioa eskaintzea eta ikasleek eta beren familiek unibertsitateak eta Lanbide Heziketako ikastetxeak ezagutzea.



Master Eguna

Otsailaren 20an egin zen Gasteizko Ingeniaritza Eskolako Master Eguna eta, bertan, 22 masterretako ardura-dunek beren programak aurkeztu zituzten 15 minutuan.

Jarduera ikasle guztientzat eta interesa zuten guztientzat izan zen, zeinek aukera izan baitzuten graduondokoa aukeratzeko orduan zituzten zalantzak argitzeko.



VITORIA-GASTEIZKO INGENIARITZA ESKOLA
ESKUELA DE INGENIERIA DE VITORIA-GASTEIZ

MASTER EGUNA

20 otsaila
febrero
10:15

2. BILERA GELA
SALA DE REUNIONES 2

AURREZTURO DIRA: / SE PRESENTARÁN:

· Máster en Ingeniería en Organización Industrial	10:15-10:30
· Máster en Ingeniería Computacional y Sistemas Inteligentes	10:30-10:45
· Máster en Ingeniería de Control, Automatización y Robótica	10:45-11:00
· Máster en Ingeniería Mecánica	11:00-11:15
· Máster en Ingeniería de Sistemas Empotrados	11:15-11:30
· Máster en Fabricación Digital	11:30-11:45
· Máster en Ingeniería de Materiales Renovables	11:45-12:00
· Máster en Eficiencia Energética y Sostenibilidad en Industria, Transporte, Edificación y Urbanismo	12:00-12:15
· Erasmus Mundus Master in Smart Cities and Communities (SMACCS)	12:15-12:30
· Máster en Ingeniería Energética Sostenible	12:30-12:45
· Máster propio en Geoinformática y Análisis Espacial	12:45-13:00
· Máster en Economía: Instrumentos del Análisis Económico	13:00-13:15
· Master in Economics Empirical Applications and Policies	13:15-13:30
· Máster en Seguridad y Salud en el Trabajo	13:30-13:45
· Máster propio en Ciberseguridad 4.0	13:45-14:00
· Máster propio en Tecnología Blockchain y Criptoconomía	14:00-14:15
· Máster propio en Digital Management & ERP: Gestión de la Empresa 4.0	14:15-14:30
· Máster propio en Software Aplicado a Ingeniería de la Construcción en Entornos BIM	14:30-14:45

go.ehu.eus/master-egunak-2020



Hamaiketakoak Ingeniaritzarekin

- San Viator ikastetxeko ikasleak gurekin izan genituen otsailaren 19an, "Hamaiketakoak Ingeniaritzarekin" izeneko jardunaldian.
- Eskolak antolatutako jarduera horretan, gure ikertzaileek dauden lekura iristen lagundu dieten esperientziak eta estrategiak partekatzen dituzte ikasleekin, eta, horrez gain, beren ikerketa lerro garantzitsuenak aurkezten dizkiete.
- Jardunaldian, gai hauek landu zituzten, besteak beste:
 - Hainbat automobilen simulazio fluidodinamikoak hiru dimentsiotan, horien ezaugarri aerodinamikoak aztertzeko.
 - Aerosolak lainoztatzeko sistemen simulazio fluidodinamikoak.
 - Hondakinetako metalak berreskuratze-ko eta mikroegiturak egiteko biolixibiazioa. Haurtxo goiztiarren kasuan duen erabilera.
 - Kontaminatzaile sortuberriak kentzeko azterketa.




Jarduera praktikoak

Azaroan eta abenduan, Gasteizko San Viator eta Carmelitas Sagrado Corazón ikastetxeetako DBHko 3. mailako ikasleen bisita izan genuen (12 eta 21 ikasle, hurrenez hurren), eta praktikak egin zituzten Ingeniaritza Elektrikoa Sailean.



2020ko urtarrilaren 9an eta 16an, "Ingurumena eta Ingeniaritza Kimikoa eskutik helduta" jardueren zirkuitua egin zen Gasteizko IEn. Helburua izan zen ikusaraztea ingeniari kimikoaren zenbait aplikazioak aukera ematen dutela ingurumena

zaintzeko eta hobetzeko. Jarduerak Naiara Rojo, Gorka Gallastegui, Junkal Gutiérrez eta Ainara Saralegi irakasleek gauzatu zituzten.



2020ko urtarrilaren 16an, jardueren zirkuitu hau egin zen: "Eraikitze diseinatu: industria diseinuan erabiltzen diren gaur egungo tresna teknologikoekin lan egin nahi al duzu eta ezagutu nahi al dituzu prozesuaren fase ezberdinak? Zer diseinatuko dugu, iturri bat? Balbula bat? Hondeamakina bat?"

Jarduera hori Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago, eta asmoa da hondeamakina baten piezen diseinuarekin eta industria fabrikazioarekin lotutako adar zientifikoetako ezagutza zabaltzea, aplikazio praktiko errazen bidez. Jarduera Amaia Calleja, Ana Boyano, Joseba Ortiz de Villalba, Igor Ansoategui, Francisco J. Madrid eta Luis M^a Berrio-Otxoak jarri dute abian.

2020ko urtarrilaren 15ean eta 16an, "Energia elektriko garbia hasieratik amaieraraino" jarduera egin zen Gasteizko IEn. Horren helburua izan zen energia elektriko garbi eta jasangarriaren sorkuntzarekin lotutako adar zientifikoetako ezagutza zabaltzea. Jarduera hori Melchor Gómez, Pablo Fernández, Joaquín Campayo, José Ramón Hernández eta Idoia Manero irakasleek antolatu dute, Eskolan ematen diren ingeniartzako gradu guztiak ezagutarazteko.

2020ko urtarrilaren 22an, "Sistema Errobotikoen Programazioa" jarduera egin zen



Gasteizko IEn. Horren helburua izan zen automatikarekin, kontrolarekin eta robotikarekin lotutako adar zientifikoetako ezagutza sustatzea; izan ere, erdi mailako irakaskuntzetako ikasleek ez dituzte adar horiek ezagutzen. Horretarako, kostu txikiko kontrol sistemen programazioan oinarritutako aplikazio praktiko errazak erabili ziren. Jarduera Ekaitz Zulueta eta Teo Rico irakasleek jarri dute abian, Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua ezagutarazteko.



KUDEAKETA AKADEMIKOA

2018/19 ikasturteko graduondoko espediente onenen aitortpena

Otsailaren 14an, Bizkaia Aretoan Master Eguna egingo zela aprobetxatuz, aurreko ikasturteko master bakoitzean espediente akademikorik onena izan zuten ikasleei aitortpen bat egiteko ekitaldia egin zen, eta diploma eta opari bana ere eman zitzairen.

Gure kasuan, espediente onena María Victoria Segura Rayak lortu zuen, Geoinformatika eta Análisi Geoespaziala Masterrarengatik.

Zorionak, María Victoria!



SMCren bisita

Otsailaren 27an, SMC enpresako Óscar Arévalo, Gustavo Ozalla eta Alexandra Solano teknikariak izan genituen gurekin, eta hitzaldi bat eman zieten Fluidoaren Mehanika irakasgaia egiten ari diren ikasleei, gai honi buruz: pneumatika eta industrian dituen aplikazioak, segurtasuna eta autonomazioa. Plazer itzela izan zen beren azalpenak entzutea. Adierazi zuten aplikazio pneumatikoak oso interesgarriak direla industriarentzat, eta beharrezkoa dela, automatizazioko ezagutzak ez ezik, segurtasunarekin eta autonomazioarekin lotutako ezagutzak ere izatea.



Jarduera hori Eskolak eskaintzen dituen ingeniari-titulazioetako irakasgaietan gero eta enpresa gehiago inplikatzeko estrategiaren barruan egin zen. Uste dugu ezinbestekoa dela ikasleak ahalik eta azkarren jartzea harremanetan etorkizunean lantoki izango dituzten enpresetako beharrian eta kasuistikekin. Gogorarazi behar dugu 2018/19 ikasturteko Eskolako gradudunen % 80k baino gehiagok borondatezko praktikak egin zituztela enpresetan (750 ordu, batez beste), eta % 19k egonaldiak egin zituztela atzerrian. Horrek guztiak eragina du gure eskolako ingeniariak eskuratzen duten aparteko prestakuntzan, ez soilik ezagutzei dagokienez, baita gaitasunei eta jarrerari dagokienez ere.



Santiagoko Unibertsitatearen bisita (Txile)

Urtarrilaren 28tik otsailaren 4ra, Txileko Unibertsitateko ikasle batzuek Eskola bisitatu zuten, eta hainbat irteera egin zituzten gure lurraldea eta kultura ezagutzeko.

eman ta zabalazuz



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

VITORIA-GASTEIZKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

